

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onestea auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza

Udal honek, 2019ko abenduaren 19an egindako osoko ohiko bilkuran, behin-behineko onestea eman zion auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza ezartzeko egindako espedienteari, eta espediente hori jendaurrean egon da legez ezarritako epean. Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, 2020ko ekainaren 25eko osoko ohiko bilkuran, Udalak behin betiko onetsi du ordenantza hori ezartzea. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatzen duena betetzeko, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Aguraingo udalerriko ergoienetako auzolanak arautzea eta zehaztea, norberak Egileorren, Alanguan, Arrizalan eta Opakuan eman beharreko zerbitzu gisa ulertuta.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

2.1 Auzoko familia: pertsona edo pertsona taldea, auzoaren barrutian teiltupe berean bizi dena.

2.2 Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, edozein tituluren bitartez kontzejuan etxebizitzaren bat daukana, udal erroldan inskribatuta egon ala ez.

2.3. Auzolana: auzoaren barrutian edo udalak jabetzan, edukitzan edo erabiltzeko esleituta dauzkan ondasunetan auzokoek edo egoitzadunek egin beharreko lana; lan horren xedeak izan behar du erabilera edo zerbitzu publikorako diren ondasunen eraikuntza, konpontze edo mantentze lanak egitea.

Auzolanak honela sailkatzen dira:

2.3.1 Ohiko auzolanak: erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen diren ondasun eta zerbitzuak zaindu eta instalatzearen, urtean zehar egiten direnak.

Borondatezkoak dira, eta helburu dute guztien onerako laguntzea, elkartasuna eta auzo harremanak sustatuz.

Lan hauek egin daitezke auzolanetan:

Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

Saneamenduak, hustubideak, estoldak, ur sare eta instalazioak, lorategiak, iturriak, putzuak eta garbitokiak konpondu, hobetu, garbitu, mantendu eta zaintzea.

Eraikinak eta gune publikoak zaindu, konpondu, hobetu, garbitu eta mantentzea.

Egur sortak markatzea edo baso aprobetxamendurako lanak egitea.

Mendi eta ibaietan garbiketa, sastraka kentze eta birpopulatze lanak egitea.

Auzorako azpiegitura edo ekipamenduak eraikitzea.

Hilerrria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

Auzoaren onerako beharrezkoa den beste edozein jarduketa egitea.

2.3.2 Auzolan ezohiko edo nahitaezkoak: eguraldi txar, hondamendi, uholde, sute edo aurreikusitako ezin daitekeen beste edozein fenomenoren ondorioz sortzen diren auzolanak, nahitaezkoak, guztien onerako baitira eta premia jardutea eskatzen baitute.

2.3.3 Salbuespen gisa, auzolana nahitaezkoa izango da baso aprobetxamenduaren (luberriak, egurketak...) baten onuradun den auzotarrantzat. Hala balitz, behartuta legoke aprobetxamenduaren gai den ondasunak zuzen edo zeharka eragiten dion auzolanean.

Pertsonentzako arriskuak saihesteko jarduerak.

Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

3. artikulua. Deialdia

3.1 Udaleko alkate-lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta erabakiko du derrigortzekoa ala borondatezkoa den, eta zer lur eremuri eragiten dion; deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta zer ordutan hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

3.2 Auzotar guztiak dute eskubidea, banaka edo talde zein elkarten bidez, borondatezko auzolanak egitea proposatzeko.

3.3 Borondatezko auzolanerako deia ohiko eran eta auzoko iragarki oholean oharra jarri egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko aurretiaz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeratik ez baitute baldintza hori bete behar.

3.4. Edonola ere, auzolanak arrazoizko epean egin ahal izateko aukera aztertuko du udalak, kontuan hartuta premia kasuak, eguraldia etab., betebeharra dutenak lan horiek ahalik eta eroso egin ahal izan ditzaten.

4. artikulua. Auzolanak nola egin

4.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak egin beharreko lan motarako alde aurretik zehaztu diren lanabes eta makineria nork berarekin ekarriz.

4.2 Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat egongo da, eta bertan aintzat hartu beharreko gorabehera guztiak jasoko dira, 2. eranskineko eredu orrian agertzen den eran.

4.3 Udalak pertsona bat izendatuko du (zinegotzia, udal langilea) auzolanak antolatu eta egiteko, eta berak banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak haiek modurik egokienean burutu daitezten.

Auzolana bada obra konplexuago bateko lanen zatiak egitea, auzolana antolatzeko izendatu den pertsonak koordinatuta jardun behar du beti Udalak obra horretarako izendatuta daukan arduradunarekin.

4.4 Auzolanerako ueña aukeratzekoan, ahalegina egingo da auzoan lan gehien izaten den sasoi izan ez dadin; asteko zein egunetan egin ere ondo aztertu behar da, hala auzotarrak nola egoitzadunak, denak agertu ahal izan daitezten.

4.5. Udalak auzolanetan parte hartzen dutenak babestuko ditu. Horretarako, auzolanetatik sor daitezkeen istripu arriskuetatik eta bestelako kalteetatik babesteko aseguruia egingo da.

4.6. Auzolanak ez dakar inolaz ere kontzejuaren eta auzolanean parte hartzera behartuta daudenen arteko lan harremanik.

5. artikulua. Ezohiko auzolanak egitera behartuta dauden pertsonak

5.1 Guztien onari eragiten diotenez eta premiaz jardutea eskatzen duten ezohiko egoerak izanik, 2.3.2 artikuluan definitutako ezohiko auzolanetan ezartzen da gutxienez auzoko familia bakoitzeko kide batek parte hartu beharko duela, bai eta egoitzadun batek edo, hala badagokio, auzoan edo ezartzen den lurralde barrutian etxe bat elkarrekin daukaten egoitzadunen taldeko kide batek, salbuespen hauekin:

a) Familiako, egoitzadunetako edo egoitzadun taldeko kide guztiak 18 urtetik beherakoak edo 65etik gorakoak izatea.

Aurrekoa gorabehera, 65 urtetik gorakoak ere joan daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta kalteetatik babestuta egongo dira dagokien aseguruarekin.

b) Auzolana egitekoa den egunean aurreko lerroaldean sartu gabeko kideak gaixo edo ezin-durik dituzten familiak.

5.2. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, betebeharra duen lagun kopuru jakin bati egin ahal izango zaio deia auzolanerako. Euren trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, besteei ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan ezohiko auzolanen deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietara ez joateko aukera izateko.

6. artikulua. Nahitaezko auzolanetatik libre geratzea

6.1 Nahitaezko auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenak horretatik libre gera daitezke era hauetakoren batean:

a) Bere ordez lana egin dezakeen beste norbait bidaliz,

b) Lanordu bakoitzeko 10 euro ordainduz; ordainketa egingo da aldez aurretik likidazioa jakinarazita, behar bezala eta 3. eranskinean zehazten den ereduaren arabera,

c) Huts egitea arrazoitua izanik, beste auzolan batean parte hartuz, egin gabekoaren ordainetan.

6.2. Erakundeak izendatutako pertsonari bidezko arrazoia adierazi gabe, deitutako auzolana huts egiten bada, nahiz eta hein batean huts egin bakarrik, artikuluko honen 1. apartatuaren b) letran xedatutakoa aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordainduko.

7. artikulua. Kalte-ordaina auzolanean parte hartzeagatik

Auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horrek eragiten dizkieten kalteen ordaina jaso ahal izango dute, udalak erabakitzen duenaren arabera.

1. eranskina

Auzolanaren deialdia: ohikoa edo ezohikoa, dagokionaren arabera

Izaera: (borondatezkoa eta nahitaezkoa).

Helburua:.....

Eragindako kaleak:.....

Eguna: (eguna edo egunak, dagokionaren arabera).....

Hasiera ordua:.....

Bukaera ordua:.....

Tokia: (elkartzeko lekua, auzolanari ekiteko).....

Parte hartzaileek eraman beharreko tresnak:.....

2. eranskina

Banan-banan deitutako pertsonak

Urtea, eguna, hila:.....

Bertaratuak:.....

Lanean emandako orduak:.....

Zenbat ordu geratzen diren: errekuperatzeko / libre geratzeko.....

Ekarrirako lanabesa:.....

Ordaindutako dieta: euro/data.....

Libre geratzea: euro/data.....

Orduak errekuperatzea: ordu/egun.....

Auzolana:.....

Urtea, eguna, hila:.....

Bertaratu ez direnak:.....

Zenbat ordu geratzen diren: errekuperatzeko / libre geratzeko.....

Libre geratzea: ordu/data.....

Orduak errekuperatzea: ordu/egun.....

3. eranskina

Jakinarazpen eredu, auzolanetik libre geratzearen likidazioarena

Izena (adierazi pertsona interesdunaren identifikazio datuak):.....

Helbidea:.....

Jaun/andre agurgarria:.....

Udal honetako auzolanen liburuan jasotzen diren datuen arabera, auzo honek
(e) ko.....aren.....(e)(a) n (adierazi zer egun, hil eta urtetan gelditu zen libre
auzolana egitetik) auzolana (adierazi libre geratutako auzolan
horretan zer lan egin behar izan zen) egitera agertu ez diren pertsonetako bat zara; ondorioz, da-
gokion ordenantza arautzailearen 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik,euro (adie-
razi auzolanen ordenantzan zehaztutako zenbatekoa) ordaindu beharko duzu libre geratzearen.

Zenbateko hori ordaintzeko gehienez ere hamabost egun balioduneko epea daukazu, jaki-
narazpen honen hurrengo egunetik aurrera.

Ez baduzu epe horretan ordaintzen (borondatezko epean, hain zuzen), betearazte aldia hasiko
da, eta, orduan, dagozkion errekaruekin ordaindu beharko duzu, Arabako Zergen otsailaren 28ko
6/2005 Foru Arau Orokorak 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko
auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzie-
tarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bes-
tela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu lehendakariari, hilabeteko
epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; horren esanbidezko nahiz presuntziozko eba-
zpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango duzu administrazioarekiko auzi
errekurtsua, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, berraztertze errekurtsua
ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik hasita, edo, ebazpenaren
presuntziozko ezespina bada, sei hilabeteko epean, presuntziozko ebazpen hori gertatzen den
egunaren biharamunetik hasita.

Ohar garrantzitsua: jakinarazpen hau egin beharko da jaso dela egiaztatze moduko bi-
deren batetik (postaz, gutun ziurtatu bidez eta jaso agiriarekin; eskuan emanda, igortzen den
gutunaren fotokopiarekin, zeinean jasota egon beharko baita interesdunaren sinadura eta jaso
duen eguna; etxean ez badago, bertan dagoen beste edozeinek jaso dezake, bere nortasuna
jasota uzten badu).

Zerga ordenantza hau behin betiko onesten da, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi
errekurtsua baino ezin daiteke aurkeztu, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, jurisdikzio hori
arautzen duten arauetan ezarritako modu eta epeetan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2020ko ekainaren 26a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES